



PRENTSA OHARRA 2019.04.03

## Munduko 28 hiritan ere egingo da **KORRIKA** euskararen alde

### **- Etxepare Euskal Institutuaren unibertsitate sarearen baitan eta Euskal Etxeetan egitarau bereziak antolatu dituzte**

KORRIKAren 21. Edizioa **apirilaren 4ean abiatuko da Garestik**. Hurrengo 10 egunetan Euskal Herri osoko errepideak zeharkatuko ditu lekukoak Gasteizera iritsi arte. Baina, beste behin ere, KORRIKAren mezua mundu osora zabalduko da, mundu osoan barrena baitaude euskararen alde *Klika* egin duten euskaltzaleak.

Etxepare Euskal Institutuaren lankidetzarekin 28 hiritan egingo da (batzuetan burutu da dagoeneko) lasterketa erraldoiarekin lotura duen ekimenen bat. Europan, 15 hiritan (Alemanian, Erresuma Batuan, Polonian...) eta 11 Hego eta Ipar Amerikan, nagusiki, Argentinan, AEBetan eta Txilen. Herrialde hauetan indar handia du euskal diasporak. Asian eta Ozeanian, berriz, Shanghain eta Sydneyn antolatu dituzte ekintzak bertako Euskal Etxeek.

Euren hirian KORRIKA antolatzeko ardura hartu duten taldeen jatorriak bi dira nagusiki: Euskal Etxeak eta unibertsitateak. Munduan zehar dauden **Euskal Etxeek 16 KORRIKA** antolatu dituzte. Etxepare Euskal Institutuak harreman estua du haiekin, Euskal Etxeetan euskara irakatsi dadin sustatzen baitu, bai Euskara Munduan programaren bidez, baita material didaktikoa bidaliz ere.

**Etxepare Euskal Institutuaren unibertsitate sarearen baitan berriz sei KORRIKA antolatu dira.** Eta beste sei kasutan bi eragile hauen eta bertako euskal komunitatearen arteko elkarlanaren emaitza dira antolatutako ekimenak.

Euskal Herrian ez bezala, herrialde batzuetan dagoeneko ospatu dira KORRIKAren inguruko festak, martxoan zehar ere izan baitira. Dena den, ia guztiak, apirilaren 4tik 14ra egingo diren **egun bakarreko ekintzak** dira. Jai hauetako bakoitzak **egitarau propioa** du, baina gehientsuenek lasterketa,



manifestuaren irakurketa, euskal kulturaren adierazpen ezberdinak (musika, dantza, jolasak...) eta jan-edanak izango dituzte euskararen aldarriari euren babesa emateko.

Etxepare Euskal Institutuaren helburua **euskara eta euskal kultura mundu osoan zehar zabaltzea da** eta hauxe bera da KORRIKArekin duen elkarlanaren xedea: nazioartean euskararen inguruko mezua zabaldu eta indartzea.

Munduan zehar, Etxepare Euskal Institutuaren eremuan, antolatuko diren KORRIKAK eta euren inguruko **informazioa** atxikitako **dossierrean** aurki daiteke.

Hauetaz gain, badira beste talde batzuek munduan zehar antolatu dituzten KORRIKA gehiago ere, besteak beste, Amsterdamen, Lisboan, Banyolesen, Noumea-Kanakyn, Grazen, Alacanten eta Munichen.

#### **+Info**

Mikel Lasa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)



Hauek dira Etxepare Euskal Institutuak kudeatzen duen unibertsitate sarearen eta Euskara Munduan sarearen baitan, hainbat unibertsitatek eta Euskal Etxek antolatu dituzten KORRIKAK eta egitarau bereziak.

\*Kontinenteka eta kronologikoki ordenatuta dago informazioa.

## **AMERIKA**

### **BOISE (AEB) - martxoak 30, larunbata**

Antolatzaileak: Boiseko Euskal Museoa, Boiseko Ikastola eta Boise State University-ko Euskal Ikasketan saila, Boise State University-ko Euskara eta Euskal Kultura irakurletza eta bertako euskaldunak.

Unibertsitateko ikasleak, ikastolako umeak eta gurasoak, museoan euskara klaseak hartzen dituzten ikasleak irakasleak, komunitateko zein kanpoko jendeak parte hartzea aurreikusten da. Helburuetako bat Euskal Museoak eskaintzen dituen euskara klaseetarako babes ekonomikoa lortzea izango da.

11:00 Euskal Museotik abiatuko da KORRIKA

14:00 Festaren amaiera

### **NECOCHEA (ARGENTINA) – apirilak 5, ostirala**

Antolatzaileak: Necocheako Euskal Etxea.

### **MONTREAL (KANADA) – apirilak 6, larunbata**

Antolatzaileak: Euskaldunak Quebec, Montrealeko Euskal Etxea.

13:00 Jeanne-Mance parketik abiatuko da KORRIKA

14:00 Bigarren etapa La Fontaine parkean.

Helmuga Station Ho.st tabernan izango da. Festa: txalaparta, trikitixa, euskara ikasleen mezuaren irakurketa, KORRIKAREN zuzeneko, kantuak eta dantzak.

### **WASHINGTON (AEB) – apirilak 7, igandea**

Antolatzaileak: Washingtoneko Euskal Etxea.

11:00 Jefferson Dr. eta 3rd St. kantoitik (American Indian Museum ondoan) abiatuko da KORRIKA

12:30 Elephant & Castle tabernan - 1201 Pennsylvania Av.- poteoa

### **MEXIKO HIRIA (MEXIKO) – apirilak 7, igandea**

Antolatzaileak: UNAMeko (Universidad Nacional Autonoma de Mexiko) Euskara eta Euskal kultura irakurletzako ikasleak, irakaslea, bertan bizi diren euskaldunak eta Euskal Etxea.

13:00 KORRIKA

14:00 Haur jolasak



14:30 Herri bazkaria  
16:30 Kantu kantari karaokea

### **NEW YORK (AEB) – apirilak 7, igandea**

Antolatzaileak: New Yorkeko Euzko Etxea

12:00 Brooklyneko East River State parkean KORRIKA abiatuko da.  
13:00 Euskal Etxean bazkaria

### **BUENOS AIRES (ARGENTINA) – apirilak 9, asteartea**

Antolatzaileak: Buenos Aireseko Euskal Echea Eskola

### **SANTIAGO (TXILE) – apirilak 13, larunbata**

Antolatzaileak: Universidad de Chile eta Universidad Católica de Chile unibertsitateetako Euskara eta Euskal Kultura irakurletza, Euskadiren Txileko Ordezkaritza eta Santiagoko Eusko Etxea.

9:25 KORRIKAren hasiera  
10:00 Atsedeen hartzeko eta hidratatzeko puntura helduko da KORRIKA, Italia plazako Obeliskora. Musika eta dantza.  
11:00 Santiagoko Euzko Etxera iritsiko dira, Vicuña Mackenna etorbideko 547.era  
11:30 Korrikaren mezua irakurriko da  
12:00 Euskarari lotutako jarduerak, musika eta dantza  
13:00 Herri-bazkari

### **LIMA (PERU) – apirilak 13, larunbata**

Antolatzaileak: Limako Euskal Gazteria eta Limako Euskal Etxea.

Limako Euskal Gazteriaren egoitza berrian ospatuko dute KORRIKA.

### **LA PLATA (ARGENTINA) – apirilak 13, larunbata**

Antolatzaileak: Universidad Nacional de La Plata-ko Euskara eta Euskal Kultura irakurletza eta La Platako Euskal Etxea.

### **VIÑA DEL MAR (TXILE) – apirilak 14, igandea**

Antolatzaileak: Universidad de Chile eta Universidad Católica de Chile unibertsitateetako Euskara eta Euskal Kultura irakurletza, Euskadiren Txileko Ordezkaritza, Viña del Mar - Valparaisoko Eusko Etxea.

11.45 KORRIKA abiatuko da  
12.30 Euskal Etxera iritsi  
13.00 Lekukoa entregatu eta manifestuaren irakurketa  
14.00 Euskararen inguruko ekintzak: karaokea, dantzak, abestiak...  
14.15 Jan, edan eta abar.

### **ASIA ETA OZEANIA**

### **SYDNEY (AUSTRALIA) – apirilak 7, igandea**



Antolatzaileak: Sydneyko Euskal Etxea.

10:30 Observatory Hillen geratuko dira  
11:00 Txokorantz abiatu  
14:00 Bazkaria

### **SHANGHAI (TXINA) - apirilak 13, larunbata**

Antolatzaileak: Shanghaiko Euskal Etxea

Euskal Herrian egin ohi den bezalaxe, Euskal Etxeak ibilbide bat prestatuko du Qiandeng herritik Shanghaiko Euskal Etxeraino. Qiandeng, Mondragon Kooperatibako parkea kokatuta dagoen herrixka da, beraz, bertan, parkeko langileei bazkaltzen ematen dien baserrian gosaria antolatuko da korrikalari guztientzat, eta ondoren, furgoneta baten laguntzaz, bi puntuak separatzen dituzten 40 eta piko km egingo dira KORRIKA, txandaka, eta KORRIKako kantua laguntza gisa dugula. Erreleboetarako lau talde antolatuko dira. Behin, Shanghaiko Euskal Etxera heldutakoan, bazkari bat antolatuko da gerturatu nahi duen guztiarentzat.

## **EUROPA**

### **PARIS (FRANTZIA) – martxoak 23, larunbata**

Antolatzaileak: Pariseko Euskal Etxea

17:30 Montmartretik abiatuta Pariseko Euskal Etxera arte KORRIKA  
20:00 Kontzertuak (Gatibu + Elepunto)

### **BRUSELA (BELGIKA) – martxoak 30, larunbata**

Antolatzaileak: Bruselako Euskal Etxea

12:00-14:30 KORRIKA (Kiosko parean)  
14:30 Poteoa (Vlaams Huis, Drukpersstraat 20, Brussel)

### **VARSOVIA (POLONIA) – apirilak 4, osteguna**

Antolatzaileak: Varsoviako Unibertsitateko Euskara eta Euskal Kultura irakurletza eta tokiko euskaldunak.

### **POZNAN (POLONIA) – apirilak 4, osteguna**

Antolatzaileak: Adam Mickiewicz Unibertsitateko Euskara eta Euskal Kultura irakurletza eta tokiko euskaldunak.

15:00 KORRIKA Stary Ryneketik unibertsitateraino.  
Ondoren, luntxa, euskal musika, janari eta edariekin.

### **LEIPZIG (ALEMANIA) – apirilak 4, osteguna**

Antolatzaileak: Universität Leipzig-eko Euskara eta Euskal Kultura irakurletzako ikasleak, irakaslea eta bertan bizi diren euskaldunak.

KORRIKA Leibnizen monumentu aurrean hasi eta Augustusplatzean zehar, Gewandhaus filarmonika famatuaren aurrean bukatuz.



### **VALENTZIA – apirilak 6, larunbata**

Antolatzaileak: Euskaltzaleok eta Laurak bat.

Valentziako Pilar plazan egun osorako programazioa antolatu dute:

11:00 Korosti Dantza taldea

12:00 Herri kirolak

13:00 21. KORRIKA

14:30 Bazkari herrikoia

18:00-20:00 Musika: Garikoitz Knörr eta DJ Soinu Gorriak

### **MADRIL – apirilak 6, larunbata**

Antolatzaileak: Euskal Etxea eta Euskatuak.

11:30 Irteera Glorieta Bilbaotik

12:00 Euskal Etxea

13:30 Parque de la Cornisan, lasterketaren bukaera, manifestuaren irakurketa eta Euskal Dantza Tailerra Euskal Etxeko Sustrai Dantza Taldearekin.

14:30 Bazkari herrikoia

17:30 Kontzertua, Esne Beltza + Ezetaerre

### **MANACOR (MALLORCA) – apirilak 6, larunbata**

Antolatzaileak: Mallorcako ARTEA Euskal Etxea

12:00 Euskal musika eta bertsolariak Bassa enparantzan: Gibelurdinek, Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia.

13:00 KORRIKA Manacorrek alde zaharrean. Amaieran “Al·lots de Llevant” castellers taldeak euskararen lekukoa ahalik eta garaien igoko du.

14:00 Bazkari herrikoia

### **BARTZELONA – apirilak 6, larunbata**

Antolatzaileak: Bartzelonako Euskal Etxea.

Otsailak 1: 20:00. Korrikaren inguruko erakusketa. Pintxopotea eta Paxkal Irigoyen *Gure sor lekua* (1956), lehen euskal filma musikatuz.

Otsailak 16: pilota partiduak Nafarren etxean

Otsailak 23: Ruta Euskalona (euskaraz)

Martxoak 9: Sagardo Eguna

14:30 bazkaria

17:00 Trikipotea

20:30 Txorroskiloren kontzertua eta Euskaraokea

Martxoak 24: Bartzelona Mendi Taldeak antolatutako txangoa eta calçotada.

Martxoak 26:

18:00 Mintzobira Euskal Etxeko eta EOIk euskara ikasleekin

Martxoak 29:

20:00 21. KORRIKako dokumentalaren proiektzioa: *Txillardegiren klik*

Ondoren, bertso afaria eta glosa kataluniarra.

Apirilak 6: KORRICURSA



### **LIVERPOOL (ERRESUMA BATUA) – apirilak 6, larunbata**

Antolatzaileak: Liverpooleko Unibertsitateko Euskara eta Euskal Kultura irakurletza eta tokiko euskaldunak.

12:00 KORRIKA abiatuko da Abercromby Square-etik, campusean zehar. Amaitzean hamaiketako egingo da.

### **BORDELE (FRANTZIA) – apirilak 7 eta 11**

Antolatzaileak: Bordeleko Euskal Etxea

Apirilak 7:

Goizean: Donapauetik gertu erosi duten kilometroan KORRIKA egitea.

Bazkaria

Arratsaldean: Baionan KORRIKA.

Apirilak 11:

Arratsaldean: Bertso-tailerra.

KORRIKA Euskal Etxea dagoen auzoan.

Afaria eta zozketa Euskal Etxean.

### **BERLIN (ALEMANIA) – apirilak 13, larunbata**

Antolatzaileak: Berlingo Euskal Etxea eta Freie Universität unibertsitateko Euskara eta Euskal Kultura irakurletza.

12:30 KORRIKA, Oranienplatzetik Mahalle Kiezladen arte, 1,2 km-ko ibilbidea.

Ondoren, janaria, edaria eta karaokea.

Ondoren jan-edanak eta festa txiki bat.

Gauean, Clash tabernan, Zea Mays eta Berri Txarraken kontzertua.

### **LONDRES (ERRESUMA BATUA) – apirilak 13, larunbata**

Antolatzaileak: London Basque Society - Euskal Elkartea.

London Fieldsen izango da. Hasieran ekitaldi bat izango dute kontzertu eta argazki erakusketa batekin. Egun horretan aurkezpen bat ere egingo dute.

Jateko zerbait izango da eta dantzari eta euskal folka jotzen duten musikari batzuekin KORRIKA sinbolikoa egingo dute.

**Beste batzuk:**

### **CORK (IRLANDA)**

Antolatzaileak: University College Cork-eko Euskara eta Euskal Kultura irakurletza eta tokiko euskaldunak.

### **HELSINKI (FINLANDIA)**

Antolatzaileak: Helsinkiko Unibertsitateko Euskara eta Euskal Kultura irakurletza eta tokiko euskaldunak.